



## TXOSTENA

### AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA.

#### ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2016ko azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2017rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea.

#### AZTERTUTAKO TRAMITEA:

2017. JARDUNALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.

**1.- 1/2013 FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUARN ERAKUNDEAK (administrazio-izaerakoak):**

#### **1.1.- ERAKUNDEEN ZERRENDA:**

Udaletxea

"Juan Bautista Gisasola" Herriko Musika Eskolaren Patronatua.

Eibarko Kirol Instalazioen Udal Patronatua.

"San Andres Egoitza" Fundazioa



## 1.2.- HELBURUAK BETETZEN DIREN EGIAZTATZEA.

### Aurrekontu-egonkortasuna.

Ondorengo lauki honetan, 2017. ekitaldi amaieran, Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen aurrekontuetako diru-sarreretan eta gastuetan dauden egoera bateratuak jasotzen dira.

#### DIRU-SARRERAK.

#### GASTUAK:

KAP.	Izena:	ZENBATEKOA	KAP.	Izena:	ZENBATEKOA
1	Zuzeneko zergak.	8.293.770,62	1	Pertsonala Langileri	14.884.321,92
2	Zeharkako zergak.	221.174,94	2	Ondasunak eta zer	10.241.896,21
3	Tasak eta prezioak	4.486.187,24	3	Interesak	31.664,66
4	Trans. arruntak.	21.319.774,01	4	Trans. arruntak.	3.854.043,87
5	Ondare sarrerak.	186.393,93			0,00
6	Inb. Besterenganatz.	0,00	6	Inbertsio errealak	3.717.959,40
7	Kapital transferentz	174.020,05	7	Kapital transferentzi	680.082,20
Diru-sarrerak, guztira (1-7 Kap.)		34.681.320,79	Gastuak, guztira (1-7 Kap.)		33.409.968,26
<b>Defizita.</b>		<b>0,00</b>	<b>Superabita.</b>		<b>1.271.352,53</b>
8	Finantza-aktiboak	85.253,78	8	Finantza-aktiboak	27.045,60
9	Finantza-pasiboak.	0,00	9	Finantza-pasiboak.	700.190,16
Finantza-sarrerak, guztira.		85.253,78			397.061,34
<b>Diru-sarrerak, guztira.</b>		<b>34.766.574,57</b>			<b>34.137.204,02</b>

2017ko aurrekontu likidazioaren espedienteak **1.271.352,53 euroko superabita du**, Europako kontuen Sistemaren (SEC) arabera. Ondorio horietarako, gerora doiketa egitea eskatuko lukeen eragiketa esanguratsurik ez denez aurreikusten, kalkulu hori -aurreko laukian ikusten den bezala-sarreretak 1etik 7ra bitarteko kapituluaren eta gastuetako 1etik 7ra bitartekoen artean dagoen aldea edo diferentzia bezala islatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2017. urterako ezarritako helburua, defizita zero izatea da.

**Hartara, 2017. jardunaldiko aurrekontuaren likidazioak BETETZEN DU aurrekontu-egonkortasunaren 2017rako helburua.**



### Finantzen iraunkortasuna.

2017.12.31an zor biziaren kalkulua ateratzeko datuak.

Banco Santander.	997.500,00
Banco Guipuzcoano Sabadell.	632.372,04
KUTXA.	168.000,00
KUTXA.	0,00
KUTXA.	997.500,00
GUZTIRA, 2016ko abenduak 31	<u>2.795.372,04</u>

2017an likidatutako diru-sarrera arruntak. 34.507.300,74  
KONTSOLIDATUAK

$$\text{Zorraren portzentajea:} = \frac{2.795.372,04}{34.507.300,74} \times 100 = \% 8,10$$

2017ko abenduaren 31ean, goian esandako erakunde edo entitate horien zor bizia 2017an likidatutako diru-sarrera arruntan % **8,10a** izan da. Kalkulu hori egiteko, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden eragiketa guztiei zegokien zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, abaletatik eratorritako arriskua barne.

2017. urterako ezarritako helburua da, magnitude hori, % **77** baino txikiagoa izatea.

**Beraz, 2017. jardunaldiko aurrekontuaren likidazioak bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2017rako helburua.**

### Gastu araua:

2016. eta 2017. jardunaldien arteko gastu konputagarriaren aldaketa %5,55koa da.

Aurreko kalkulu hori ateratzeko goian esandako entitate horien datu kontsolidatuak edo bateratuak izan dira kontuan hartu direnak. Honatx zehaztasunak:

<b>GASTU KONPUTAGARRIAREN ALDAKETA.</b>		
a1	Finantzazkoa ez den gastua, 2016 (1etik 7ra bitarteko kapituluak).	34.010.356,19
a2	KSE doiketak.	
a3	Interesak, 2016.	39.957,62
a4	Finantzaketa lotua duen gastua, 2016.	6.183.710,62
<b>a=a1+a2-a3-a4</b>	<b>Gastu konputagarria, 2016</b>	<b>27.786.687,95</b>
b1	Gastu ez finantzarioa, 2017 (1etik 7ra bitarteko kapituluak).	33.409.968,26
b2	KSE doiketak.	
b3	Interesak, 2017	31.664,66
b4	Finantzaketa lotua duen gastua, 2017	4.048.240,28
b5	Arau-aldaketen ondorioa.	
<b>b=b1+b2-b3-b4-b5</b>	<b>Gastu konputagarria, 2017</b>	<b>29.330.687,95</b>
<b>c=(b/a-1)*100.</b>	<b>Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan).</b>	<b>5,55</b>

2017. urterako ezarritako helburua da, magnitude hori, % 2,2 baino txikiagoa izatea.

**Hartara, 2017. jardunaldiko aurrekontuaren likidazioak EZ DU BETETZEN gastuaren araua.**

### **1.3 ONDORIOAK**

2017. jardunaldiko aurrekontuaren likidazioak, BAI betetzen ditu aurrekontu-egonkortasunaren helburua eta finantza-iraunkortasunaren helburua, baina EZ du betetzen gastu-araua.

Beraz, Udalak plan ekonomiko-finantzario bat onartu beharra du.

Hala ere, gastu araua ez betetzearen arrazoia denez diruzaintza gerakina erabili izana, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. Arauan ezarritakoari jarraituz, Kontu-hartzaitzak berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomiko finantziarioa ordezkatuko duena.



**2.- 1/2013 FORAU ARAUAREN 1.2.b) ARTIKULUKO ERAKUNDEAK EDO ENTITATEAK.**

**2.1.- ERAKUNDEEN ZERRENDA: IMESA SAU.**

**2.2.- HELBURUAK BETETZEN DIREN EGIAZTATZEA.**

1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako erakundeei dagokienez, egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzat emango dira behin, banaka hartuta, beren aurrekontuak onartu, gauzatu eta likidatzen dituztenean edo galeren eta irabazien kontuak finantza-orekan onartzen dituztenean.

**IMESA S.A.U.k** aurkeztutako 2017. urteko aurrekontuan orekatuta daude gastuak eta sarrerak. Kontuak onartzerakoan, egiaztatu behariko litzateke finantza-oreka agertzen duela Galeren eta Irabazien Kontuak; baina, kontuan hartuta baltzua desegitea erabaki zela 2015eko abenduaren 1ean egindako osoko bilkuran eta 2017ko abenduaren 12an merkataritza-erregistroan baja inskribatu zitzaiola, ez da egiaztatze horren beharrik izango.

Eibarren, 2018ko apirilaren 18an

Zigor Egia Lejardi  
Eibarko Udaleko funtsen Kontu-hartzailea